

**MOZIO ARRUNTA,
HERRERAKO TREN GELTOKIKO BEHIN-BEHINEKO SARBIDEAREN IRISGARITASUNA DELA
ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Herrerako tren geltokiko behin-behineko sarbidearen irisgarritasuna dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

RENFE erakundea Herrerako tren geltokia berritzen hasi da. Hori dela eta, hegoaldeko sarbidean behin-behineko eskailerak jarri ditu nasara irteteko. Eskailera horiek ez dute bermatzen pertsona ezinduen edota orgatxoekin doazenen irisgarritasuna.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIO ARRUNTA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio RENFE erakundeari berma dezala Herrerako tren geltokiko hegoaldeko nasara sartzeko irisgarritasuna, berritze lanek irauten duten denboran osoan.

Donostian, 2021eko apirilaren 9an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea